



**2017KO IRAILAREN 8KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko irailaren zortzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Ane Irastortza Izagirre zinegotziak bere ezin etorriaz ohartarazi du.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko uztailaren 28an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 84 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, LAUROGEITA SEI MILA ETA ZAZPIEHUN EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (86.700,30 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-**

Kulturako batzordeburuak aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartzea erabakitzen du:

- Antzar Korrikalariak.- Lazkaoko II. bikoteen kross mistoa antolatzeagatik 3.365,90 €ko dirulaguntza. Lehen 3.000 € aurreratu zitzairen eta orain ordainduko zaiena 365,90 € izango da.
- Oin Arin taldea.- 2017ko Sanprudentziotan, maiatzaren 1ean Suelto Dantza Txapelketaren antolaketagaitik 1.961,90 €ko dirulaguntza. Lehen 1.000 € aurreratu zitzairen eta orain ordainduko zaiena 961,90 € izango da.
- Oin Arin taldea.- Ekainaren 18an Dantzari Txiki Egunaren antolaketagaitik 1.987,10 €ko dirulaguntza.
- Danak Elkarte.- Maiatzaren 1ean toka lehiaketa antolatzeagatik 600 €ko dirulaguntza. Lehen 300 € aurreratu zitzaion eta orain ordainduko zaiena 300 € izango da.

**IV.- SAN INAZIO KALEKO ESPALOI KONPONKETA LANEN LEHEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-**



San Inazio kaleko espaloien konponketa lanen obra zuzendaritza daraman udal arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiriaren zenbatekoa HAMALAU MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (14.963,30 €), BEZ barne. Lan hauek Construcciones Otegi Gaztañaga S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, onartzea erabakitzen du.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

